



**2009KO URTARRILAREN 14KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hamalauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko abenduaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, HIRU-REHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (366.987,74 €)takoa, eta 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, ZORTZI MILA ETA ZAZPI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (8.007,54 €)takoa, beren espedienteetan daudenak, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-001 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren elokairurako hilean 212,98 € eta mantentzen diren gastuak ordaintzeko hilean 62,96 €ko dirulaguntza ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %72a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 08-12-006 zbk.dun esped.: Zerbitzutik baja 2008ko abenduaren 18an, egoitzan saritzeagatik.
- 09-12-002 zbk.dun esped.: Zerbitzutik baja 2009ko urtarrilaren 6an, heriotzagatik.

...///...

Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 09-13-01 zbk.dun esped.: bere aita preso dagoenez, bisitetarako hilean 81,92 € ematea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

